

Xabier Martin

DONOSTIA— Hauteskundeei begira, EAJrentzat erreferentzia bat da Think Next laborategia, baina Xabier Barandiaran (Ataun, Gipuzkoa, 1969) EAJko Berrikuntza Politikoko arduradunak «arnasa luzeko» proiektu gisa azaldu du, eta bozetatik aldendu. Barandiaranek uste du «herritarrengandik gertu egotea» izango dela gako nagusi bat alderdientzat.

Politika publikoak, naziotasuna, molde berriak eta abar aipatu dituzue proiektuari loturik. Zein da Think Nexten helburu nagusia?

Bi erronka nagusi ditu: batetik, politikari buruzko hausnarketa egitea; gure herriak dituen erronka politikoei aurre nola egin lan-tzea, alegia. Bestetik, etorkizuneko herri politikak eta agenda politikoa jorratzea. Adituekin ari gara, bai, baina batez ere herritarrekin, gizarte eragileekin. Finen, hausnarketa gune bat da, garai berri batzuetan baikade eta horrek hausnarketa bat egitea eskatzen baitu.

Entzunez eraiki prozesuaren ondorioetako batzuk izan dira alderdi kontserbadore gisa ikusten dela EAJ, eta lagunkeriarekin lotzen dela. Think Nexten ari zarete aztertzen EAJk nola hobetu behar duen gizartearekiko hurbiltasuna?

Entzunez eraiki-ren emaitza nagusia izan zen EAJk konfiantza handia sortzen duela, kritikak ere azaldu ziren arren. Demokrazia liberalak krisian daude, ez bakarrik EAJri dagokionez, orokorrean baizik. Globalizazioaren eraldaketa dago horren oinarrian; beraz, demokrazian sakondu nahi badugu, herri politikak modu sendoan eginez, herritarrengandik gertu egon behar dugu, herritarrekin lankidetzan aritu. Herrigintza egiteko modu kolaboratiboak landu nahi ditugu.

Orokortasunetik harago, EAJk berak bultzatu zuen alderdia berrikusteko prozesua, eta ondorio jakin batzuk atera zituen. Zertan aldatu edo hobetu behar du?

Agenda politiko berri bat landu behar dugu, etorkizuneko erronkei erantzuteko, eta, zalantzarik gabe, eraberritze prozesu bat garatu behar dugu. Alderdi politiko guztiek egin behar dute, eta guk ere bai. Egun hauetan ikusi dugu eraberritze hori abian dela. Udal eta foru hauteskundeean ere islatu zen. Gizarteari entzutea funtsezkoa da, eta hori bezain funtsezkoa da entzundakoak eragina izatea gero.

Imanol Pradalesen hautagaitza eraberritze horren barruan sar-

tu du EAJk. Iñigo Urkullu baino gazteagoa dela alde batera utzita, politikoki zer eskaini dezake hark, Urkulluk eskaini dezakeenetik harago?

EAJk proiektu bat dauka, eta garai berrietarako ondoen ordezkatzeko duena Imanol Pradales da, baldin eta alderdikideek hala aukeratzen badute; gaztea eta prestatua delako, eta badatozen garaietarako gakoak ondo ulertzen dituelako. Datozen hamar-hamabost urteetarako erronkei heltzeko, belaunaldi berri bateko norbait behar da; Iñigo Urkullu eta Imanol Pradales EAJren erantzule dira, baina garai desberdinetan.

Eguno egoerarako Pradales Urkullu baino hautagai egokiagoa dela aditza ematen ari zara? Datozen hamar-hamabost urteei

# «Eraberritze prozesu bat jarri dugu abian; gizarteari entzutea funtsezkoa da»

**Xabier Barandiaran**

EAJko Berrikuntza Politikoko Arloko arduraduna

Think Next laborategia plazaratu du EAJk, «garai berriei» aurre egiteko moldeekin asmatzeko. Hauteskundeen atarian plazaratu dute jeltzaleek, baina «bozetatik harago» doan proiektu gisa, Barandiaranek esan duenez.



«Urkullu eta Pradales ez dira konparagarriak, garai desberdinetakoak baitira; eraberritze bat egiteko garaia da orain»

«EAJk eredu publiko-komunitarioa ezarri du; ez dugu administrazioa osorik estatalizatu nahi; EH Bilduk bai»

begira ari bagara, belaunaldien erreleboa funtsezkoa da, hemen eta beste leku batzuetan.

Bizkaiko Sustapen diputatu gisa egin duen ibilbidean aurki daitetzke Think Next-en nabarmentzen dituzuen ezaugarriak?

Imanol Pradales kudeatzaile oso ona da, eta haren kudeaketa etorkizunari begira egindakoa izan da. Hurbiltasuna hobetzeaz ere ari zarete, herrigintzaz. Pradalesek hurbileko kudeaketa egin du Bizkaiko Aldundian?

Bai, zalantzarik gabe, baina beste kontu bat da oposizioa zer esaten ari den. Imanol [Pradales] gertuko pertsona bat da, herritarrengandik gertu dagoen lider bat.

Oposizioak ez du ikusten Urkulluren eta Pradalesen arteko alderik arlo politikoan. EAJren hautagai berria lehendakaria

balitz, sumatuko lirateke desberdintasunak?

Konparazio bat egin nahi duzu, baina ez dira konparagarriak, garai desberdinetakoak baitira. Iñigo Urkulluk ekarpen handia egin du aro garrantzitsu batean, eta, orain, herriak eskatzen duen moduan, eraldatze bat egiteko garaia da. Hori ez da jo behar aurrekoarekiko kontraesantzat, geroari heltzeko borondatez baizik. Think Next plazaratzean, Andoni Ortuzarrek esan zuen «pertsonak erdigunean» jarri behar dituela politikak. Eguno Jaur-laritzak baino gehiago jarriko lituzke erdigunean Pradalesek? Herri honetan eraiki diren gizarte politikak, Europako aurreratuenetakoak, EAJk eraiki ditu. Pertsonak erdigunean jarri behar dira, eta EAJk orain arte



GORKA RUBIO / FOKU

# «Eraikuntza nazionalean lider izateko pertsona egokia da Pradales»

DONOSTIA—Duela aste batzuk, Think Next proiektua ezagutarazteko ekitaldian, EAJko presidente Andoni Ortuzarrek «autogobernu berri» bati lotua marraztu zuen geroa, «euskal nazio aurreratua» eraikitzeko. Erantsi zuen «bere buruaren jabe» izan beharko zuela nazio horrek, «irekia, inklusiboa eta euskalduna». Barandiaranek eta haren taldeak naziotasuna jorratu dute ez alferrik geroari begiratzen dion laborategian. Pradalesek lortzen badu Eusko Jaurlaritzako lehendakari izatea, erakundeetatik gidatuko al du EBB marrazten ari den ardatz subiranistagoa? EAJko Berrikuntza arloko arduradunak hala ziurtatu du.

Nazio aitortzan aurrera egiteko liderra izango da Pradales? EAJk izan dituen lehendakariak eta lehendakari guztiek bultzatu dute nazio eraikuntza. Asko dago egiteko atal horretan, eta hurrengo lehendakariari ere, EAJkoa bada, egokituko zaio nazioegintzan aurrera egitea. EAJ alderdi abertzalea da, eta, horrela den heinean, hura lidertzat duen gobernu batek urratsak egin beharko ditu nazioegintzan eta herrigintzan. Plurinazionalitateaz hitz egin du EAJk sarritan. Baliteke subiranotasunak pisu handia-

goa izango lukeen beste ziklo politiko bat zabaltzea aurki. Pradalesen soslaian badago burujabetzaren aldeko ezau-garria? Imanol [Pradales] Euzko Alderdi Jeltzalekoa da, abertzalea, eta, beraz, funtsezko aktibo bat da gure herriaren eraikuntza nazionalean. Hurrengo urteetan nazioegintzan ematen diren pausoei adostuak izan beharko dute. Gure herriak adostasun zabala beharko du, nazioegintza ezin baitute bakarrik erakunde publikoekin egin, herriarekin lankidetzan egin behar da eta. Adostasun politikoarekin batera, gizarte eragileen adostasuna beharko da. Prozesu horren lider izateko pertsona egokia da Imanol Pradales. **Hauteskundeak datoz berriro. EAJk boto asko galdu ditu azken bi deialdietan. Think Next erreferentzia bat izango da kanpainarako?** Laborategia ez dago hauteskunde hauek begira, aurrerago begira baizik. 2024 osoan dugu egitaraua, hausnarketa ezin baita epe jakin baterako bakarrik egin. **Baina alderdiak edango du hausnarketa horietatik?** Neurri handi batean, laborategiko hausnarketak proposamen izango dira herrigintzarako, bai. ● X.M.

egin duen bideari jarraituko dio. Ez dezagun ahaztu eredu publiko-komunitarioa EAJk ezarri zuela. Orain, erronka berriak daude gure adinaren piramidearekin lotuak. Eskari berriak datoz, baina gure eredu publiko-komunitarioak eredu bat ematen digu etorkizunerako. **Eredu publiko-komunitarioa esatean, publiko-pribatua esaten ari zara?** Ez. Publiko-komunitarioa da erakundeak lankidetzan jartzea herri interesekin aritzen diren gizarte eragileekin, ez interes pribatuen baitan daudenekin. Beste eredu eredu publiko hutsa da, ezker abertzaleak nahi duena. Guk ez dugu nahi administrazioa oso-rik estatualizatu; hori ez da izan gure herriaren eredu inoiz ere. BERRIA eta ikastolak zer dira?

Pribatuak ala herri interesekin egindako egitasmoak? Gure herriak aspaldian finkatu zuen eredu publiko-komunitarioa. **Urkulluk goratutako publiko-pribatuaren ardatza propo-**

**satzen duzue garai berriei erantzuteko?** Lankidetzan gobernantza bat proposatzen dugu aurrera egiteko, herritarrekin egiten den lankidetzan sakontzea. ●

**ZUGAN**

LASERRA ETA EDERTASUNA



**Adituak gara:**

- Laser depilazioan
- Aurpegiko tratamenduetan
- Gorputz birmoldaketan

**BEASAIN - TOLOSA**

**KOBOLOI JOSTAILUAK**



**Egurrezkoak eta didaktikoak diren jolasak, haur, nerabe zein helduentzat**

**Arreta euskaraz**

**LAZKAO**  
koboloijostailuak.com